

gaiak

9. zenb. azaroa 2016



esk

Baldintzarik Gabeko Oinarrizko
Errentari buruzko ESKren ideiak

ARABA

Beethoven 10 behe. 01012 **Gasteiz**
Tlf: 945 21 48 88 Fax: 945 21 50 56
araba@esk.eus

BIZKAIA

Gral. Concha 12, I . 48008 **Bilbao**
Tlf: 944 10 14 25 Fax: 944 10 14 38
bizkaia@esk.eus

GIPUZKOA

Alfonso VIII 3, 3. esk. 20005 **Donostia**
Tlf.: 943 45 69 11 Fax: 943 46 28 66
gipuzkoa@esk.eus

NAFARROA

Emiliana Zubeldia 5, behe. (Arrotxapea)
31014 **Iruñea**
Telf.: 948 22 41 24
nafarroa@esk.eus

www.esk.eus

 ezkersindikala  @ESKsindikatur

Aurkibidea

□ Hitzaurrea	2
□ 1. atala Egungoaren kritikan sustatzen gara	5
□ 2. atala Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta (BGOE)	9
□ 3. atala Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren finantziarioak	14
□ 4. atala Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren aurkariak	19
□ Azken hitza	23

Hitzaurrea

Nola heldu zen ESK BGOEren aldarrikapenera?

Oinarrizko Errenta baten inguruko ideiak sindikatuko zuzendaritzako kideen irakurketa eta hausnarketaren bidez sartzen hasi ziren ESKn, gai honetaz joan den mendeko 80. hamarkadaren bukaeran argitaratu zituzten artikuluko batzuen irakurketa eta hausnarketaren ostean. Garrantzi berezia izan zuen Lovaina Unibertsitateko bi irakaslek (Van Parijs eta Van der Veen) idatzitako *Oinarrizko Errenta, komunismorantzako bide kapitalista* izenburua zuen artikulua argitarapenak, gazteleraz 1986an argitaratu zena. Honen ondoren hamaika artikuluko idatzi ziren gutxiengo txiki baten babesarekin; babes hau, batez ere, babes akademikoa izan zen, baina eztabaidari haize-bolada freskoa ekarri zion, hainbat erakunde sozialetan eztabaida piztuz ukiezina zen gai tabuen inguruan: enplegu betea, Ongizate Estatua, fiskalitatea, eta abarren inguruan hain zuzen.

Hastapen intelektuak horietatik abiatuta, Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta gure sindikatuan bidea pixkanaka irekitzeko arrazoiak bi izan ziren; alde batetik, *kultura lanista* deitu izan dugun horren inguruan egiten genuen hausnarketa kritikoarekin konektatu zuelako, eta bestaldetik, Euskadin ezagutzen ez zen *pobreziaren fenomenoaren* hedadurarekin ere konektatu zuelako. Egia da fenomeno hau gordean zegoela eta ez zuela adierazpen publiko nabarmenik, baina 1987an Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen inguruko Lehen Inkestak nabarmendu zuen bezala, pobrezia ikaragarrikoa zen.



Bi arrazoi hauek elkarren osagarriak ziren eta ondorioz Ongizate Estatuaren filosofiak ezarritako ereduaren ikuspegi kritiko bat eman zuten; honen arabera lana (izen honekin soldatapeko lana bakarrik aipatzen zen, bizitzaren ugalketarako ezinbestekoak diren etxeko lana eta zaintza-lana albo batean utziz. Emakumeek batez ere egiten dituzten lan hauek, etxeko lanak eta zaintza-lanak hain zuten, lan hauek ez daude ordainduta ezta sozialki baloratuak; honez gain, lan hauek ez dira Barne Produktu Gordina (BPG) neurtzen dituzten ohiko estatistika ekonomikoetan azaltzen, honez gain estatistika hauek ez dute lan boluntarioa jasotzen, fenomeno sozial den boluntarioria hori) gure Ongizate Estatuaren sendotasunaren euskarria zen eta konfiantza oso izan behar genuen, *Ongizate Estatuak segurtasuna bermatuko zigun sehaskatik hilobiraino*.

Nahiz eta kultura lanistaren hausnarketa kritikoak enplegu betearen krisitik haratago egiten bazuen ere, abiapuntua hemen zegoen. Zer gertatzen da enplegurik ez badago, kapitalismoaren urrezko urteetako (1945-1975) enplegu bete pasada ez itzultzeko? Nola sostengatu pentsioak? Nola ekidin pobrezia-aren hedapenari?

Datu horietan oinarrituta, ESK bezalako sindikatu xume batek, joan mendeko laurogei eta laurogeita hamargarren hamarkadetako industria-krisiaren aurkako borroketan buru belarri bestek ez bezala jardun zuena langile-ekintzarako bide erradikalak defendatzen (borrokak ordaintzen du, gure esakuneetako bat zen), sindikalismoa sostengatzen duen kultura lanista zalantzan jarriz gero lanpostuak arriskuan ikus zezaketen pertsona liberatuz jositako estruktura sindikalek zituzten oztopoak ez genituen, libreak ginen Oinarritzko Errenta bezalako ideia berrien artean ibiltzeko.

Honez gain, ESK-k, lanismoaren kritika horri, bere esparru guztietan, ekiteko aukerak hobetzen zituzten bi gauza sendo zituen bere hartzekoan. Alde batetik, feminismoarekin genuen lotura eta emakume feministen presentzia indartsu bat sindikatu barruan; emakume hauek enpleguaren balorea desmitifikatzen zuen berariazko ekarpena egiten zuten, eta jendarte patriarkaletan desberdintasunak emakumeei dakarkien eragina lehen mailan jarriz; desberdintasun honek zaintza, lanaldi bikoitzak, soldata-arraila pairatu eta abarrera eramaten ditu emakumeak.

90. hamarkadan, pobrezia- eta bazterketa-egoeran diren sektoreekin etengabe egiten hasi ginen landa-lana zuen jatorria bigarren puntu sendoak; landa-lan hau ez zen sindikatu bezala zuzenez egiten, baizik eta ESKko afiliatuen bidez, eta propaganda- eta mobilizazio-ekimenetan. Lan honek bi alderdi zituen, alde batetik alderdi politikoa, aldarrikapen programatikoa, eta bestaldetik pobrezia eta jendarte-bazterketaren aurkako borrokan sustatzen zena. Pobrezia eta jendarte-bazterketaren aurkako borroka hau Eusko Jaurlaritzak garai hartan zituen prestazioen eskatzaile eta hartzaileentzako aholkularitza-lanetan biltzen zen; garai hartako prestazioek Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera (GGDS) eta Gizarte-Larrialdiko Laguntza (GLL) zuten izena.

ESKn zabaltzen hasi ziren bide hauen emaitzak Oinarritzko Errentaren ideia berriarekin genuen lotura gero eta sendoa izatea posible egin zuen. 2001ean, Bartzelonan, Oinarritzko Errenta Sarea

Elkartea sortu zenetik, ESK, erakunde bezala, eta ESKko militante batzuk bazkide bezala lotu zitzaizkion elkarte sortu berriari, elkartearen sinposietara (urteroko batzarrak) joanaz, hamaika era desberdinaz elkarlanean arituz, eta honen erakusgarri Bilbon, azaroak 18 eta 19an, egingo den BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTAREN XVI. SINPOSIOAren prestaketa-lanetan ari den talde sustatzailearen euskarri izatea, Bilbon ere egin zen IX.aren sinposiaren antolaketa izan zen bezala.

Zertaz hitz egin nahi dugu gaiak honetan?

gaiak honek lau atal ditu. *Lehen atal* egungoaren kritika jasotzen du. Abiapuntu pedagogiko eta errealista bezala egungo pobrezia hartu dugu, endemiko bihurtu baita; instituzioek eragotzi behar zutenaren ezeztatze garbiena da, instituzioen porrotaren ebidentzia. Hau dela-eta, Ongizate Estatuaren tresnak diren enplegua, langabezia-prestazioak eta pentsioen porrota adierazten dugu. Baita ere joan den mendeko laurogeigarren hamarkan Ongizate Estatuari adabakia jartzeko sortu zituzten bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errenta-sistemen porrota.

*Bigarren atal*ean, ESK-k defendatzen duen Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren ereduaz azaltzen dugu, zertan datzan, bere ezaugarriak azalduz eta egiten zaizkion kritikak desmuntatuz.

*Hirugarren atal*ean, BGOE-ren bideragarritasun ekonomikoa defendatzera bakar-bakarrik zuzenduta dago. Red Renta Basica elkarreak garatu duen finantziario-ereduak egingarri egiten du BGOE baten ezarpena epe labur edo ertain batean borondate politikorik balego horretarako. ESK Red Renta Basica elkartearen finantziario-proposamen horri atxikitzen zaio.

*Laugarren eta azken atal*ean BGOEren ezarpena eragozten dituzten arerioak aztertzen ditugu. Ez dira arerio pertsonalizatuak, nahiz eta batzuk seinatu ditzakegun, errealitateak baizik (kulturalak, botereak, instituzioak...) BGOEren ideiarekin aurrerabidearen kontra dihardutenak. Hau dela-eta, arerio indartsuenak hautatu ditugu, hiru arerio ahin zuzen (gehiago izan daitezke) honako errealitatean bilduz: lehenengoa, kultura lanistaren nagusikeria; bigarrena, Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezarrita dagoen eta Espainiako erresuman direnen artean eraginkorra den Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren ereduaren hobetzearen bidez BGOE bat lor daitekeela dion ideia; eta hirugarrena, oinarrizko errenten beste ereduarekin nahasmendua, egia esan, eredu hauek, indarrean den kapitalismo neoliberalaren eztabaidan ezartzen ari zaigun Troikako zaldien zeregina betetzen dituzten bitartekoak dira, zeinen helburua Ongizate Estatuta erasotzea den, eta beraz suntsitzea eredu hauetakoren bat ezarriko balitz.



I. atala

Egungoaren kritikan sustatzen gara

Pobrezia, egun, Ongizate Estatuaren ezeztatze praktikorik handiena da. Honekin ez dugu esan nahi Ongizate Estatuaren krisia erasotzeko beste ikuspunturik ez dagoenik, hau da, Ongizate Estatuak Lord Beveridge¹-ren adierazpen ospetsua betetzeko duen ezgaitasuna, pertsonen segurtasuna bermatzen ziela, sehaskatik hilobiraino, zioen adierazpenospetsua; baina pobrezia, gure ikuspuntutik bederen, krisi horren elementurik adierazgarriena da, bere existentzia hutsak garbi baino garbiago adierazten duelako aipaturiko eredu hori sostengatzen zituzten bitartekoek ez dutela funtzionatzen; pobrezia, eredu sanitarioaren krisia, hezkuntzaren krisia, zerbitzu sozialen krisia, pentsioetan, eta abarren krisia baino hobeto adierazten du Ongizate Estatuaren krisia.

- Pobrezia errealitate iraunkor bat bihurtu da gurea bezalako jendartetan (arestian herri gartuak edo Lehen Mundukoak zirenak) joan den mendeko hirurogeita hamargarren hamarkadaren bukaeratik aurrera. Hirurogeita hamargarren hamarkadako erdialdeko krisiak garbi eta argi utzi zuen Ongizate Estatuaren krisian zegoela eta itun keynesiarra mantenezina zela. Laurogeigarren hamarkadan Ronald Reagan-ek A.E.B.etan eta Margaret Thatcher-ek Erresuma Batuan ezarri zuten aro neoliberal berriarekin nabarmenki gauzatu zen krisi hau.

¹ Lord Beveridge-k Britaina Handiko parlamenturako egindako bi txostenetan Ongizate Estatuaren oinarri teorikoak diseinatu zituen; lehen txostena, 1942koa, "Gizarte Segurantzza eta bertan sorburua duten prestazioei buruzkoa" izenburuarekin, eta bigarrena, 1944koa "Lana denontzat jendarte libre batean" izenburua zuen txostena.

- Ziklo ekonomikoen arabera gorabeherak dituen pobrezia iraunkor honen zioa, herrien arabera munta-desberdintasunak, bere laztasun handiago edo txikiagoak, pertsona pobreen tipologia... berbera da aurreko puntuan adierazitako jendarte guztietan, hau da, Ongizate Estatua sostengatzen zituzten oinarrien krisia eta honek sortutako instituzioena.
- Lehenik eta behin esan behar dugu Ongizate Estatuaren oinarria izan zen enplegu bete ez dela aspalditik ematen, nahiz eta estatistikek kopuru hauek desitxuratzen dituzten eta sines-tarazi nahi diguten %4 baino gutxiagoko langabezia-tasak enplegu betearen adierazgarriak direla.

Aro keynesiarreko, joan den mendeko 40. hamarkadaren erdialdetik 70. hamarkadaren erdialderainoko aroa, giza itxuradun kapitalismoa hegeita hamar urtez sostengatu zuen enplegu beteak langabezia-kopuru bat baino gehiago zekarren, enplegu bete izan ala izatearen arteko muga adierazten zuen lerro gorria adierazten zuen. Enplegu bete, kapitalak eta sindikatuek onartzen zuten hitzarmen edo itun sozial bat zen, enpleguari txertatzen zitzaizkion eskubi-deetara hedatzen zitzaizkionak. Eskubide hauek, soldata duinetik lanaldi osora zabaltzen ziren, kaleratzeen aurkakosegurtasunatik pasaz, eta abar.

- Enplegu betearekin, enplegurik zuten pertsonak (lan egitekourteak zituzten gizonezko gehienak eta egunez egun emakume gehiago) soldata bat zuten pobrezian erortzea ekiditen ziena; enplegurik gabeko pertsonak oso laburrak ohi ziren langabezialdietatik babestuta zeuden, pobreziatik libratzekoprestazio publikoak zituztelarik; eta pertsona gaixoak, ezindua eta erretiratuak ere pobreziatik libratzen ziren euren pentsioei esker.
- Eraikin hau eraitsi egin da, edo ez hain erradikalak izateko, eraikina eraisten ari da azken lau hamarkadetan; egia esan, behera etortze honek, hamarkada horietan kapitalismoa kontrolatu duten botereen eraispen bat izan da. Gure jendarte aberatsetan ez da ezer sortu orain arte itun keynesiarra eta Ongizate Estatua berrosatzeko asmoarekin edo beste alternatiba global proposatuz. Gainberaldi luze baten aurrean aurkitzen gara, beraien aldeko izugarrizko indar-korrelazio batekin; jipoituta dauden gehiengo sozialek ez dute ahalmenik eraso kapitalistari aurre egiteko, eraso kapitalista honek aurrerantzako ihesari ekin dio eta jendeteria hondamendira eraman dezake.
- Ongizate Estatuaren zulo batzueialdabaki batzuk jartzeko, krisiaz krisi murrizketa sozialen terapia ezartzen den bitartean, Europar Batasuneko herrietan bermatutako eta baldintzatu-tako gutxieneko errenten ereduak ezarri dira joan den mendeko laurogeigarren hamarkada-tik egun arte. Ongizate Estatu hornituago eta bermatzaile bati esker pobreziatik babestuta zeuden kolektiboak pobrezian edota jendarte-bazterketan ez erortzea izan da eredu horien helburua.

Krisiaz krisi, kolektibo hauek aldatuz doaz, pertsona eta kolektibo berriak gehituz. Egun, pobrezia, oinarri handiko errealitate bat da, eta langabezia-sorospenak agortu dituzten luzaroko langabeak eragiten ditu, baita familiatik independizatu diren gazteak, zeinen prekarietateak



bizi-beharrak betetzea eragozten duen, ezin ahaztu pentsio miserableak dituzten adinekoak, familia nuklearrak, batez ere guraso bakarreko familiak, eta abar.

- Bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errentek, pobreziarekin amaitzeko helburuarekin sortuak, porrot egin dute Europar Batasunean. Arrakasta handiago izan duten tokietan, muturreko pobrezia leuntzeko baino ez dute balio izan, muturreko pobrezian ziren kolektiboak jendarte-bazterketan eror ez zitezten. Arrakastatxo hori ez da Espainiako erresuman eman, EAE-n izan ezik ezta Nafarroan neurri batean bada. Eredu hauen porrotek amankomunean dituzten elementuek eredu hauen diseinuarekin lotura estua dute. Hau dela-eta, ES-Kren ustetan, bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errenten porrota ez da kudeaketa baten porrota, ereduarena baizik. Hona hemen porrot horren funtsezko arrazoiak, ereduaren diseinuan kokatzen diren arrazoiak:
 - Ereduak pobreei exijitzen dizkien baldintzak eredu onartuak izan daitezen ikaragarri-zkoak dira, pobrezia-egoeran diren pertsona horietako asko kanpoan uzten dituela. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren kasuan, gertuen duguna baita, 2014ko Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestan, pertsonen %27ak ezin izan zuen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentetara heldu (honela deitzen da bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errenta EAEn).
 - Urtez urteko aurrekontu-zuzkidura handiago bada ere, eskatzaileen kopurua gehituz doalako, aurrekontuko diru-hornidura eskasa egiten da; EAEra itzuliz, DSBE jasotzen zutenen herenak zioen ezin zuela pobreziatik ihes egin nahiz eta DSBE jaso.
 - Pertsona eskatzaileeta hauen tipologia gehituz doan neurrian, ereduaren kudeaketa gero eta korapilotsuago egiten da, erabilgaitzago eta garestiago ere. Eta jakina, eraginik gabekoa eta maltzurra gure jendardeko pertsona hauskorren bizitza latzago egiten duelako sistema honen mende egotera behartzen baititu. 2008-2013ko krisiaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren prestazio sozialen jasotzaileekin Gasteizko eta Bilboko ARGILANen egiten dugun landanean ikusi dugu pertsona pobreen profila aldatuz joan dela, eta pertsona horien artean krisiaz jota zeuden klase ertaineko jendea eta enplegu prekarioak dituzten gazte ugari ikusi ditugu.
 - Eredua enplegarritasunarantza bideratu den tokietan (hemen ere Lanbide-Servicio Vasco de Empleoaren kasua nabarmentzen da), porrota nabarmena baino nabarmenagoa izan da. Enplegu-politika aktiboak, gutxieneko errenta bat jasotzen dutenekiko nahitaezko kontra-prestazioarekin lotu nahi denean, enplegarritasunaren esparruan eraginik ez ukan izan ezik, administrazioak bere eskutan daukan arma bat ere bihurtzen da jendea sistematik botatzeko.
 - Azkenik eta aurreko guztiaren ondorio moduan esan bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errenten eredu hauek jende pobrea laidoztatzen dituela, hiritarren begien aurrean euren pobrezia-egoeraren kulpadunak balira azalduz. Jasotzaile-migratzaileen portzentajea

garrantzitsua den kasuan (kolektibo migratzaileen pobrezia bertakoena baino askoz larriago), honek, jarrera xenofobo eta arrazisten estimaezinezko haztegi bat eskaintzen du, eta Europar Batasuneko herri gehienetan gorantza egiten ari diren eskuin-muturreko alderdiak ondo baino hobeto baliatzen dira horretaz.



2. atala

Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta (BGOE)

ESK-k defendatzen duen BGOEren definizioarekin hasiko gara, Oinarrizko Errenta sarea Elkarrekin proposatzen duen definizioa hain zuzen ere: “Estatuak jendardeko eskubide osoko kide edo egoilar bakoitzari ordaintzen dion diru-sarrera da Oinarrizko Errenta, ordaindutako lanik egin nahi ez badu ere, kontuan hartu gabe aberats ala pobre den, edo beste era batera esanda, beste errenta-iturri batzuk dituen ala ez, eta norekin bizi den inporta ez duelarik”.

Ondoren, azalduko ditugu aurreko definizio deskribatzaile bezalako batek dituen elementuak:

- **Estatuak ordaintzen duen diru-sarrera bat.** Egia esan, Estatu terminoaren barruan, Estatuak baino handiago den edozein instituzio juridiko-politiko sar daiteke (Europar Batasuna, adibidez) edo Autonomia-erkidego bat bezalako txikiago bat.
- **Eskubide osoko kide edo egoilar bakoitzari.** BGOE hiritar bakoitzari emango litzaioke indibidualki eta unibertsalki (pobrezia-maila batekin lotu gabe, adibidez).
- **Ordaindutako lanik egin nahi ez badu ere.** Askotan, lana, ordaindutako lana edo enpleguarekin nahasten da. ESK-k uste du honako tipologia egokiagoa dela: a) ordaindutako lana merkatuan; b) etxeko lanak; c) lan boluntarioa.
- **Kontuan hartu gabe aberats ala pobre den, edo beste era batera esanda, beste errenta-iturri batzuk dituen ala ez.** Pobrezia-maila edo egoera bati loturiko subsidioekin ez bezala, pertsona aberats zein pertsona pobre batek jasoko du BGOE. Baldintzarik gabetasunak ematen dion enfasiakedozein baldintza gehigarri baztertzten du, eta sufragio unibertalerako eskubide herritarraren parean jartzen du BGOE.

- **Eta norekin bizi den inporta ez duelarik.** BGOEk ez du elkarbitza jakin bat faboratzen. Berdin da etxebizitza batean pertsona bakar bat, bikote heterosexual bat, belaunaldi desberdinetako jendea, lagun talde bat edo bikote homosexual bat bizi den; bizikidetzeta era guzti hauek ez dute loturarik BGOE jasotzeko eskubidearekin.

BGOE instituzio sozial berri bat bezala ezartzearen kasuan, honek ekarriko lituzkeen gaitz sozialen inguruko salaketa esplizituen aurka argudiatzen oso ohituta gaude ideia hau defendatzen dugunok. Dena den, jakin badakigu BGOEren eskarmentu historikoak bakar-bakarrik, errealitate sozial bat bezala, aukera emango ligukeela dioguna baieztatzeko ala BGOEren aurka direnei arrazoa emateko.

Beraz, zuhurrak gara gure argudioen baliozkotasuna proposatzeko garaian, eta gauza bera exijitzen diegu aurka egiten dutenei. Hala ere, BGOEren defentsan tinkotasun sendoago bat planteatzen dugu diotenean BGOE ez dela gai izango gure jendarte kapitalistarekin amaitzeko, tamainako deskalifikazioak esaten direnean tinkotasunaz erantzuten dugu. Kontuan hartuta jendarte erabat kapitalista batean bizi garela, ESK-k uste du berehalako helburu antikapitalistarik ez duten planteamenduak egin daitezkeela.

BGOE ez da antikapitalista, ezta gure jendarteek dituzten arazo sozial guztien soluzio-bidea; arazo hauen artean aipatu lanaren banaketa sexuala, ingurumen-egoera, ondasunaren metaketa esku bakan batzuetan, enpresa handien botere ez-demokratikoa, arrazakeria eta xenofobia... Hau dela bide, BGPE kritikatzeko soluzioa aurkitu nahi ez duenarengatik desegokia den bezala, bere posibilitateek eman dezaketenaz haraindi gorestea ere desegokia da, BGOEk berak ez du 'jendarte eredu bat' eskaintzen, ezta 'sistema' bat' edo diseinu instituzional globalik. Zerbait izatekotan, eraldaketa sozialerako proiektuan pieza bat izan daiteke, edo egungo politika sozialen diseinuan proposamen zehatz bat.

- 1.- **BGOEk ez du lan-merkatutik aterako den alfer jendarte bat ekarriko**, interesik gabe enpleguaz; honek, biztanleriaren beharrak betetzeko gai ez den jendarte bat ekarriko luke. Hau da hain zuzen jende askori BGOEz ez fidatzera edo bete-betean errefusatzera eramaten dion sena. Nola deseuztatu daiteke ideia hori?

Jendartean beste bi lan mota daude (etxekoa eta boluntarioa) enpleguarekin batera ematen direnak, inolako kontraprestaziorik jaso gabe.

Irrika kolaboratzaileak eta konkurrentzialak nahasten dituen giza izaera jendartean emandako bizitzaren bidez garatu da, eta honek jendartearen aldeko lan bat exijitu du.

BGOEerako aurreikusten den diru-sarreraren mailak (600-700 euro hilean) bizimodu latza emateko aukera baino ez du emango, bizitza duin bat bermatuko duena, baina zerikusirik gabe gurea bezalako jendarteko biztanleriaren gehiengoak bere beharrak betetzeko duen ohiturarekin.

BGOEk gure bizimodua aldatuko balu ere, eta latzago bizitzera nehartuko bagintu ez litzateke batere txarra izango, batez ere gure bizitzaren sostengarritasun ikuspuntutik.



2.- BGOEk existentziarako eskubide berrmatuko du eta askatasuna areagotuko du enpleguaz landa. Aditzera eman dugun BGOEren definizioan genion BGOE ordaindutako lanik nahi ez dutenei ere emango zaiela, hau da enplegatu nahi ez dutenei.

Edozein pertsonen lehen eskubidea existentziarako eskubidea da. Eskubide hori besterenezina da eta ezin da eragotzi inolaz ere ez. Gureak bezalako jendartetan existitzeko diru-sarrerara batzuk izan behar dira. Egia da badirela antolaketa sozialerako beste era batzuk, non oinarrizko beharrak era komunitario batean bete daitezken, dirurik erabili gabe, baina oraingo honetan ez gara eztabaida horretan sartuko.

Zergatik diogu askatasuna areagotu egingo dela? diru-sarrerara hau ezeren truke jasotzen duena besteren mende, enpleguarengatik, izan behar duenabaino libreago da. ondoren, jendarteari nadi duen ekarpena egin diezaioke, baina ez da behartuta egongo.

3.- BGOE instituzioek maneiatzen dituzten aurrekontu ekonomikoekin finantzia daiteke.

Puntu hau hirugarren atalean garatuko dugu, beraz, honetaz hemen ez dugu ezer esango.

4.- BGOEk, Espainiako erresumako autonomia erdigidego desberdinetan ematen diren berrmatutako eta baldintzatutako gutxieneko errentekiko hobekuntza bat ekarriko luke.

Berrmatutako eta baldintzatutako gutxieneko errentei buruz lehen atalan genionari eusten diogu honako arrazoiengatik:

- a) Pobrezia era eraginkorragoan eragotziko luke. Izan ere, pobrezia ekonomikoarekin amaituko luke.
- b) Baldintzatutako gutxieneko diru-sarreraren emate eta kontrolean doazen gastu administratibo gehienak aurreztuko lituzke.
- c) Krisialdian gutxieneko errentak jasotzen dituzten pertsona migratzaileen aurka areagotzen ari diren banaketa soziala, xenofobia eta arrazismoaren gorakada ekidingo lituzke.
- d) Pobrezia ekonomikoa eta gutxieneko errenta sistemara joan behar duen jen jende pobrei buruzko ikusmolde umilgarria erabat eraldatuko luke. BGOE izaera unibertuala eta baldintzarik gabekoa denez, berau jasotzen duena gainontzeekiko desberdina balitz seinatzea ez luke zentzurik.

5.- BGOEksoldaten zoru bat finkatzeko zeregin garrantzitsua izango luke, kapitalak soldatak beherantza bota ez ditzan. Eta grebetan, erresistentzia-kutxa bat bezala funtzionatuko luke, honelako kutxarik duten sindikatuek gaindituz.

6.- Zer eragin izango luke emakumeengan BGOEk?

Emakumeen genero-berdintasunaren aldeko borrokan BGOE baten ezartzeak izan ditzaizkeen potentzialtasun eta eragin zitalen inguruko hausnarketak, ESKn gehien kezkatzen duen

gaietako bat da. Ezagutzen ditugu eta oso baloratzen ditugu emakume feminista batzuen ideiak diotenean BGOEk saldo negatibo bat izango lukeela emakumeen berdintasuna lortzeko bidean BGOEren eragin negatiboak eta positiboak kontabilizatu ostean. Egia esateko, ESK-k ez du bat egiten ikuspegi ezkor horrekin, eta aitortzen badugu BGOEren aldekoak zein kontrakoak zehaztasunik gabe ari garela, gure arrazoibideak, senak eta beharbada gure sentimenduek ere, honako ideia hauek proposatzera eramaten gaituzte:

- 1.- Emakumeak gure jendarteko talde zaugarrienetako bat izanik eta zaugarritasun hori, neurri handi batean, independentzia ekonomiko batera heltzeko ezintasunarekin lotuta dagoela diru-sarrerara ezarengatik, BGOE batek beren egoeran hobekuntza bat ekarriko lieke. Bistakoa da emakume guztiak ez daudela zaugarritasun-egoera berean, berdin esan dezakegu gure jendarteko edozein arloetaz, baina honek ez du gure hautematea baliogutzen.
- 2.- Bermatutako eta Baldintzatutako errenten jasotzaile gehienak emakumeak dira egun, eredu asistentzial hau desgertuko balitz BGOE bat ezarriko litzatekelako onuran aterako lirateke.
- 3.- Egun emakumeak kolektibo esanguratsuen bezala agertzen diren elkarbizitza-ereduak susta ditzake eta hauetara egoki daiteke (emakumeak buru diren guraso bakarreko familiak) BGOE.
- 4.- Diru-kopuru indibidual bat denez, BGOEk ezkonduetako emakumeen egoera ekonomikoa hobetuko luke, batez ere jendardeko maila pobreenetan aurkitzen direnak.
- 5.- BGOEk eskaintzen duen neurri bateko independentziak “etxe-kontrabotere” bat bezala har daiteke, sexuen arteko dominazio-harremanak eraldatzeko kapaz dena eta emakumeen negoziazio-indarra etxe barruan areagotu, batez ere ezkontidearen mende direnak edo era eten batean edo aldi baterako lanak izateagatik diru-sarrerara eskasa dituztenak.
- 6.- Ugal-zereginaren birbanaketa, errealitate zabalago batekin lotu behar da: baldintzarik gabeko errenta baten bermeak merkatutik aldi baterako ateratzea benetako aukera ekar dezake. Orain arte emakumeek batez ere baina ez boluntarioki egiten zituzten aldizkako lanak edo aldi baterako lanen hautaketa.

7.- Zein eragin izango luke gaztediarengan BGOEk?

Gazteek, kaltebaretasun taldeetako bat osatzen dute, eta askeago lirateke BDOE batekin, batez ere lan-baldintza oso prekarioak jasaten dituzten sektoreetan. Izan ere, gazteengan langabezia-tasa eta lan-prekarietate indizerik handienak dituzte. Gazte askok, BGOE batekin, “ez” esan dezakete egun hainbat lan-egoeren aurrean “bai” esatera behartuta daudenean.

Aldi berean, BGOE bat gazteei familia-etxebizitzatik emantzipatzeko aukera emango lieke erraztasun handiagoz.



8.- BGOEk zer eragin dezake inmigrazioan?

BGOE baten ezartzeak populazio inmigrante gehiagoen heltze bat ekar dezakeen, egun enpleguarekin gertatzen den moduan. Honek, eta herri aberatsetako biztanleen bizi-baldintzak hobetzera zuzendutako beste neurriekin gertatzen den moduan, ez du kolokan jartzen BGOE baten ezartzearen komenigarritasuna. Dena den, uste oso horrek beste herriekin ditugun harremanak eta eredu ekonomikoak artikulatu beharrera eramaten gaituzte, bi alderdien ongizatean pentsatuz, eta hortik abiatuta garapen sostengarri eta orekatu bat lortu.

3. atala

Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren finantziakzioa

Atal honetan BGOEren finantziakzioari buruz bakarrik arituko gara, hau da, zein kostu duen hautatzen den lurralde-unitate bateko biztanleriari BGOE ordaintzea eta nola ordaintzen den, hots, nondik ateratzen den dirua.

Orain arte, Oinarrizko Errenta Sarea Elkarteak BGOEren hiru finantziakzio-azterteka egin ditu. Lehena, 2013. urtearen bukaeran egin zen, Katalunian. Bigarrena, hilabete batzuk geroago, Gipuzkoako lurralde historikoan, eta hirugarrena, 2014ko bukaeran, Espainiako erresuman, azterketa honetan Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa ikerketatik kanpo geratu ziren, ez baitaude guztien zerga araubidearen barruan.

Hiru kasuetan, mikrosimulazio-eredu ekonometriko berbera erabili da, ikertutako lurralde bakoitzeko PFEZ-Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenen datu esanguratsuekin. Hiru kasuetan atera diren ondorioak antzekoak izan dira. Gertuko errealitatea denez eta adibide zehatz bat azaltzea pedagogikoago denez zebakiz jositako gai astun bat aztertzerakoan, Gipuzkoan egindako azterketa zehaztasunez azaltzea erabaki dugu, eta Espainiako erresumari dagokiona era laburragoan.

Mikrosimulazio-erdu ekonometriko batean oinarritzen den finantziakzio-erduak bi iturri bakarrik erabiltzen ditu BGOE finantziakzteko; alde batetik kanpo-iturri bat, hau da, ezarriko den BGOE baino gutxiagoko edozein eratako prestazio publiko guztiak ez ordaintzeagatik lortzen diren aurrezkiak, eta bestaldetik, barne-iturri bat, PFEZren erreformaren ondorioz ematen dena.

BGOE baten finantziakzio-eredua zehaztu aurretik jakin behar da zein BGOE mota ezarri nahi den, hau da, bere ezaugarriak zehaztu egin behar dira; hauek, kasu honetan, honakoak dira:



- 1.- Unibertsa eta baldintzarik gabekoa izatea.
- 2.- Funtsezko beharrak betetzeko berrmatuko duen zenbateko ekonomikoa.
- 3.- Ez dadila PFEZrekin zergapetuta egon.
- 4.- Beste prestazio publiko baten zenbateko gutxiagokoa ordezkatzeari (pentsioak, subsidioak, laguntzak, bekak, eta abar).
- 5.- Desagertzen diren prestazio publikoak osatzea, hauen zenbatekoa BGOEren bano handiago denean.
- 6.- Indarjartzeak ez dezala egun Estatu instituzioek Ongizate Estatu bezala ezagutzen dugun horretan edozein zerbitzu integratua finantziatzeko erabiltzen duten PFEZen diru-sarrerarik aldendu.

Ondoren, Gipuzkoako biztanle bakoitzari transferituko zaion OEren zenbatekoa kuantifikatu behar da: 7 902 € urtean (658,5 € hilean) hemezortzi urte bano gehiagokoentzat eta 1 580,4 € urtean (131,7 € hilean) ez-emanzipatutako 18 urte bano gutxiagokoentzat, hau da, helduentzako OEren %20a.

Zeintzuk dira erabili diren datuen ezaugarriak? Gipuzkoako 2011ko PFEZren aitomenen errolda indibiduala erabili da (450 000 aitorten gutxi gorabehera); aitorten hauek, etekin garbien fluxu guztiaren inputazio zehatz baterako aldagai eta magnitude garrantzitsuenak dauzkate, hau da, lana, kapital higigarria, kapital higiezina, jarduera ekonomikoa, ondare-irabaziak eta ondare-galerak. Aitorten-egileen ezaugarri soziofamiliarak ere identifika daitezke: adina, egoera zibila, ondorengoak, aurrekoak, aitorten indibiduala ala baterakoa den, pensiodunak, eta abar; honela, 680 000 pertsona ingurura heltzen da.

Zeintzuk dira Gipuzkoako 2011eko PFEZen datuek adierazten dituzten ezaugarri garrantzitsuenak?

- PFEZen estaldura %96koa da (egindako aitortenetan 681 888 pertsona, 709 607ko biztanleri batentzako).
- Aitortutako etekinen guztizkoa 11 995,1 milioi eurokoa zen, murriztapenengatik 1 282,6 milioi euro eta kenkariengatik 963 milioi euro kendu ostean, bildutako diru-kopurua 1 474 milioi eurokoa izan zen.
- Abiapuntuak errenten arteko desberdintasun garbi bat adierazten du, errenta gordinen Gini indizea 0,3988koa delarik (indize hau 0 eta 1aren artean mugitzen da; 0ak erabateko berdintasuna adierazten du, hau da, jende guztiak errenta-maila berbera duela, eta 1ak, erabateko desberdintasuna, hau da, Gipuzkoako errenta guztia pertsona baten eskutan izango balitz).
- Murriztapenak eta kenkariak oso erregresiboak dira (errenta altuenen aldekoak dira), honek esan nahi du PFEZrekin lortutako desberdintasunen murrizketa, birbanaketa terminuetan, %3,8koa bano ez dela.

Hona hemen gorago definitu den BGOEren ezarpena finantziatzeko PFEZen erreformaren ezaugarriak:

- 1.- Aurrezpenaren oinarria oinarri orokorrean sartzea.
- 2.- Etekin arteko konpentsazioak kentzea.
- 3.- Gutxieneko pertsonal eta familiarrak kentzea.
- 4.- Oinarriaren murriztapen guztiak kentzea (pentsio-planak, egoera pertsonalak, lan-etekinak, eta abar).
- 5.- Kuotaren kenkari guztiak kentzea (etxebizitza, pizgarriak, eta abar).
- 6.- Tipo bakarra OEren transferentziarekin bateratura.

Zenbateko gutxiagoko edozein prestazio publikoa ordezkatzeko lukeen BGOErekin emango litzatekeen aurrezpena 1 730,8 milioi eurokoa izango litzateke (aurrezpen honetan, desagertuko liratekeen prestazioen diruak sartuko lirateke, 47,6 milioi euro hain zuzen ere, hau da, egungo administrazio-gastuen %50a; prestazio hauek administrazio-lan handia behar dute). Zenbateko hau, gorago deitu dugun kanpo-finantziatutik lortzen da.

Kanpo-finantziazioaren parte bat 213 milioi euro hain zuzen, PFEZ aitortzen ez duten 27 719 pertsonen (Gipuzkoako biztanleriaren %4a) OE ordaintzeko erabiliko dugu (18 urte baino gehiagoko 26 771 heldu eta 948 adin gutxiko). Honela, PFEZaren bidez azter daitekeen biztanleria finantziatzeko geratzen den soberakina 1 518 milioi eurkoa da.

Zeintzuk dira proposaturiko PFEZen erreformaren emaitzak?

- %40,52ko tipo nominal bakar batek 590 927 heldu eta 118 680 gazteen BGOE finantzia de- zake (ex-post egoera BGOErekin), PFEZen aurretiko diru-bilketa bermatuz (ez-ante egoera BGOErik gabe).
- Ex-post egoerak, ex-ante egoerarekiko, irabazten ateratzen diren aitortza-egileen %62,6a dakar; gehiago ordaintzen dute, baina BGOEren transferentziarekin konpentsatuak gelditzen dira.
- Irabazten ateratzen direnak %74,7a arte igotzen dira aitorten-egileak bere kargu dituen pertsonak sartzen dituenean, BGOE banako transferentzia bat baita.
- Emaitza, 1 518 milioi euroko kanpo-finantziazioarekin lortzen da; BGOE baino gutxiagoko prestazio publiko guztien absortzioaz lortzen den aurrezpenarekin lortzen da kanpo-finantziazio hori.
- Errentaren arabera ordenatutako aitorten-egileen lehen %70ak ex-post errentan bere parte-hartzea %9,6an gehitzen du, hau da, aitorten-egile aberatsenak galtzen duen %30a ex-ante egoerarekin alderatuz. Zerga-xedetarako, errentak honako elementuak ditu: soldatak, langa-



bezia-prestazioa, pentsioak, interesak, alokairuak, dohaintzak edo jaraunspenak, akzioetako dibidendua...

- Ex-ante egoeran, aitortpena egin duten lehen %70ak bildutakoaren %20aren ekarpena egiten du eta %10 aberatsenak %66,7a.
- Ex-post egoeran, aitortpena egin duten lehen %50a hartzaile garbia da (BGOEren transferentziak emandako kuota gaintzen du) eta aitortpena egin duen %10 aberatsenak bildutako diru-kopuruaren ia-ia %77a.
- Desberdintasuna gutxiagotzen da. Errenta garbiaren Gini indizea, ex-ante egoeran 0,3612koa zena, orain 0,2623koa da, hots, ex-post egoeran hamar puntu jaisten da.
- BGOE sartzean birbanaketa hobetzen da, ex-ante eta BGOE ezarri eta ondorengo ex-posten arteko egoera 2,5 aldiz biderkatzen delarik.
- Errenta-dezilen lehen lauetako (errenta-taldeak bloketan %0tik %10era, %10etik %20ra, %20tik %30era, %30etik %40ra) aitortpen-egile guztiak irabaziak lortzen dituzte. Bosgarren dezileko, batz besteko 20 142 €-ko errentarekin, %86a irabazten ateratzen da eta %14a galtzen ateratzen da; seigarren dezileko, batz besteko 24 085 €-ko errentarekin, %69a irabazten ateratzen da eta %31a galtzen. Zazpigarren dezilan, batz besteko 28 653 €-ko errentarekin, galtzen dutenak irabazten dutenak baino gehiago dira, nahiz eta galerak eta irabaziak baliokideak diren. Zortzigarren dezilan, batz besteko 34 146 €-ko errentarekin, galtzen ateratzen direnak irabazten ateratzen direnak baino askoz gehiago dira; eta aitortpen-egile aberatsenak dauden azken bi deziletan (errenten %80tik %90era eta %90tik %100era bitartekoak), batz besteko 41 553 € eta 77 146 €-ko errentekin, hurrenez hurren, denak ateratzen dira galtzen. Aitortpen-egile aberatsen %2ak urtean 16 881 €-ko galera per kapita du, errenta-eskalan aurreko %3ak (%96tik %98ra bitartekoa) 5 950 € galtzen ditu, eta aurreko %5ak (%91tik %95era bitartekoa) urtean 4 094 € galtzen ditu.
- Erreformarekin galtzen ateratzen diren poltsikoetatik irabazten ateratzen diren poltsiekoe-tara transferitzen den guttizkoa 548,3 milioi eurokoa da, hau da, Gipuzkoako BPGren %2,5a. Portzentaje hau, PFEZen bidezko zerga-presioaren areagotze bat dakar; eta ikus daitekeenez neurrizko gehikuntza bat da.

Espainiako erresumaren adibidea (Euskal Autonomia Erki-dego eta Nafarroa gabe)

- Ikerketa egiteko, Estudios Fiscales eta Agencia Tributariak utzitako PFEZren bi milioi likidazio erabili dira, 2010eko likidazioak hain zuzen.
- Kasu honetan, Gipuzkoako adibidean azaldutako urrats guztiak errepikatu dira, datu desberdinekin jakina. Aipagarrienak honakoak dira:

- Datu hauetan ez daude EAE eta Nafarroako biztanleak, eta mikrosimulazio-ereduan ia 34,3 milioi pertsona sartu dira, eta kanpoan ia 9,5 milioi pertsona geratu dira (2010ean PFEZen aitortza egin ez zutenak).
- Hamazortzi urte baino gehiago dutentzako 7 471 €-ko BGOE bat proposatu da (622,58 € hilean) eta diru-kopuru horren %20a emanzipatuta ez dauden hemezortzi urte baino gutxiago dutentzako.
- PFZEN erreformaren ostean lortuko den finantziarioari erantsiko zaizkion kanpo aurrezpenen guztizkoa 52 152 milioi eurokoa da. Guztizko hau, PFZEN aitortza egin ez dutenei BGOEren 62 856 milioiak ordaindu ondoren geratzen den soberakina da.

■ Hona hemen lortu diren emaitza nagusiak:

- Ondoriozko tipo nominal bakarra %49,5eko litzateke; tipo nominal berbera atera zen 2013an Katalunian egindako mikrosimulazioan.
- PFEZen aitortpen-egile gehienak eta aitortpenik egiten ez dutenak irabazten aterako lirateke egungo egoerarekiko alderatuz. Goi-mailako dezilakoak galtzen aterako lirateke, aitortpen-egileen %100a galtzen aterako litzateke, hau da, %95 eta %100 arteko guztiak galtzen aterako lirateke; %80 eta %90eko dezilen artekoen %95a; %70 eta %80eko dezilen artekoen %76a; %60 eta %70eko dezilen artekoen %66a; %50 eta %60eko dezilen artekoen %38a; %40 eta %50eko dezilen artekoen %9a; %0 eta %40eko dezilen artekoak ez lirateke galtzen aterako.
- Proporzionalki, ezer ez dutenek irabazten aterako lirateke: BGOEren 7 471 € urtean, PFEZaren aitortpena egin behar ez luketelarik.
- Proposatutako erreformak errentaren birbanaketa sakon bat ekarriko luke. Gini indizea 0,25ean jarriko litzateke; honek murrizketa zorrotza dakar 0,41eko errenta gordinaren indizearekiko, eta 0,37ko errenta garbiarekiko PFEZ kitatu ostean. Gini indize berria herri eskandinaviarreko indizearen antzekoa litzateke.
- Galtzen ateratzen diren eta irabazten ateratzen diren artean transferitzen diren diruak zenbateko gorbian 35 000 milioi eurokoa da. Diru-kopuru hau BPGren %3,5a da, zentzuzko diru-kopurua, Espainiako erresumak Europar Batasuneko bataz bestearekiko duen zerga-presioaren zortzi puntu azpitik.

I Oinarritzko Errentari buruzko irakurle batzuk irakurrita izango dute BGOE bat finantziatzeko Espainiako erresuman aipatu dugun diru-kopurua baina hamar aldiz handiagoko diru-kopuru bat behar dela. Nola kalkulatu ziren diru-kopuru horiek? Erresumako biztanle guztiak, berrogeita bost milioi hain zuzen, hartzen ziren eta BGOEren urteko diru-sarrerekin (7 800 euro/urtean, 650 euro/hilean) biderkatzen zen. Biderketa horren emaitza 350 000 milioi eurokoa zen, eta bilioi bateko BPG batekin, finantziario-kostua BPGren %35a ateratzen delarik. Bistan da kostu gordin hori irreal zela; ESK-k proposatzen duen BGOEren proposamenean BGOEri aurre egiteko behar den diru-kopurua 35 000 milioi eurokoa da. 7 800 euro/urtean baino gehiagoko errenta pertsonalak dituztenek ez baitute ezer izango BGOE bezala. 35 000 milioi hauek, lehen aditzera eman dugun PFEZen erreformatik aterako lirateke.



4. atala

Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren aurkariak

Ideiak irabiatzeko gai ez bagara, ez da posible izango BGOE gauza dadin egin beharreko bidetik aurrera egiterik. Honetarako, hiru arlotan zentratuko gara.

Kultura lanistaren hegemoniarekin amaitu behar da

Lehen atalean luzez aritu gara gai honen inguruan, beraz, gauzak ez errepikatzen saiatuko gara. Mendebaldeko jendarteetan hegemonikoa den kultura lanistan, lanari bakar-bakarrik edo ia bakar-bakarrik balore positiboak ematean oinarritzen da; honek, naturarekiko harramana, jendartea osatzen duten guztiekiko eta honen instituzioekiko harremana bere gain hartzeko aukera ematen du. Lana, alde batetik, gure jendarteen antolakuntzaren bizkarezurra bihurtzen da, eta bestaldetik, eskubideak eta betebeharrak jario diren jatorria.

ESKrentzat kultura lanista desmitifikatzea funtsezko egiten da gure jendarteak hobe daitezen nahi badugu bederen, bizi garen planetarekin bakean izateko, eta helburu hau lortu behar dugu espezie bezala etorkizunik nahi badugu eta, azken buruan, hobeagoak izango diren bizitzak erakitzeko. Desmitifikazio horretara daude zuzenduta hanako paragrafoak:

- Lana terminoaren desmitifikazio antropologiko batekin hasi nahi dugu. Honetarako Jose Manuel Naredo-ren *Raíces económicas del deterioro económico y social* (Editorial Siglo XXI) liburua aipatuko dugu; liburu honen zazpigarren atalean “Lan eta ekoizpenaren mitologiaren berraztertzea”-ri buruzkoa, 157. orrialdean honakoa dio: “Ekoizpen eta garapen ideiekin ematen den bezala, oro har, lanaren egungo kontzeptua ez dela kategoria antropologiko bat ahazten da, are gutxiago giza izaeraren inbariante bat. Aitzitik, kategoria historiko bat da, zeinaren oinarri metafisikoa ezkutatuta mantentzen den. Lana, kategoria homogeen bezala,

XVIII. mendean finkatu zen, ondasun, ekoizpen eta sistema ekonomikoaren ideiekin batera, diziplina berri bati bidea emateko, ekonomiari hain zuzen ere”.

- Aurreko paragrafoetan lana enpleguaren sinonimotzat hartu da. Apropos egin dugu kultura lanistaren desmitifikazioan, lan hitza erabiltzen denean enplegua esan nahi delako. Hitzaurrean adierazi dugun bezala, enplegua (lana merkatuarentzat) gure jendartetan ematen diren hiru lan motetako bat da. Beste biak, etxeko lanak edo zaintzarena edo bizitzaren ugalketarena, eta lan boluntarioa, bahituta geratzen dira enpleguak lan terminoa kolonizatu duen moduarekin.
- Enplegua, merkatuarentzat lan era da, kapitalismo industrialarekin sortu zena. Populazioaren gehiengoarentzat enplegua, berez, ondare bat da, zeina helburu den maila pertsonalean zein sozialean. Lan-merkatua gure bizitzen bidezko instituzio bat bezala naturaltasun osoz onartzen da, baina merkatu hau zer den eta nola funtzionatzen duen eta bere izateko arrazoia zertan datzan pitin bat pentsatuz gero, gaitzesgarritzat hartuko genuke. Bizi ahal izateko bere lan-indarra saltzera behartuta dagonaren lan-indarra erosterik dauka kapitala duenak, nahi duena ekoizteko erabiltzerik izatea, ekoizpen hauek sozialki mesedegarriak izan gabe kapitalari etekin pribatu baten lorpena eragiten dio bakar-bakarrik, kapitalaren eskutan langabezia sortzea egoitea kapitalak erabakitzen duenean enplegu horrekin ez duela etekinik ateratzen, eta abar.
- Ez da pertsona antikapitalista peto-peto bat izan behar gorago egiazatu ditugun gauzak pentsatzeko. Kultura hegemonikoekin, enpleguarena kasu, aurrez aurre jartzen garenean hauek kritikatzeko oso zaila egiten da gure jendarteko bizitzak antolatzeke balioa izan dutelako, nahiko ongizatez hornitu dituelako. Hori, lehen atalean aditzera eman dugun bezala, bukatu egin da. Hau dela bide, ezkertiarren ikuspegitik ulergaitza egiten da, pertsona guztien bizitza bermatzeko alternatibak bila aritzen jarraitzea; honek, ezinbestez, bizi ahal izateko, existitzeko alegia, enpleguaren bidez nahikoa izango den diru-sarrerara bateaz hornitzea exijitzen du. *Bermatutako lanaren* (bermatutako enplegua) *proposamenaz* ari gara.
- Bermatutako lanaren alternatibak BGOEren alternatibarekin konkurri zezakeen, jendartea osatzen duten guztien existentziarako eskubidea bermatzeko garaian emaitza berberak eskaintzeko gauza balitz. BGOEren kasuan, emaitza horiek, garbi eta argi azaldu ditugu 2. eta 3. ataletan.

Espainiako Erresuman langabetuei ez ezik, bermatutako enpleguetarako aukera dutenei ere enplegua bermatzeak ekarriko lukeenari buruz Oinarrizko Errenta Sarea Elkarteko pertsonak egindako ikerketa batzuk aztertu ditugu. Bermatutako enplegu hauek 900 eta 1 200 euroren arteko soldata gordina hilean izango lukete hogeita hamabost orduko lanaldi batean. Eta emaitza, gure ustetan, ez da batere gehiegizkoa, guztira bederatzi milioi eskatzaile baino gehiago aterako lirakeke. Era berean, alternatiba honek izango lukeen kostua ez dago gaizki kalkulaturik, 150 000 milioi euroko kostua hain zuzen, hots, Barne Produktu Gordinaren %15a.

Bermatutako lanaren alternatiba planteatzen denean diru-kopuruen arazoari beste batzuk erantsi behar dizkiogu; alde batetik, bizitza bermatuta izango luketen pertsona horien enple-



guei aterako litzaieken onura, eta bestaldetik, nola ekidin bermatutako lan hori egin beharreko enplegu bat bihur ez dadin.

- Ez dugu bermatutako lana txiki-txiki egin nahi. Egia esan, enplegua desmitifikatzeko borrokan, merezi ez duen hegemonia kultural horrekin amaitzeko borrokan, ESKri, lehenik eta behin, motibatzen dio parte garen esparru sindikal horri eta mugimendu sozialei helaraztea BGOE bat bezalako alternatiba bat proposatzeko dugun aukera, eta honen mamiari dagokionez gorputz sendoa duela. Proposamen horrek esparru sindikalean ez du lekurik izango ez badu enpleguaren kritika erradikal bat egiten, egun arte enpleguak izan duen hegemonia kulturala ez badu baztertzeko eta bere ezak sor dezaken hutsunaren buldurraz itota jarraitzen badu. Berririo esango dugu ez gaitzezen gaizki ulertu, enplegu eta bere eskubideen defentsa ez dago kontraesanetan planteatzen dugun hausnarketarekin ezta BGOEren defentsarekin.

Bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errenten bidez ez da BGOEa inoiz helduko

Jakin badakigu Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitza Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzak (GLL) Espainiako erresumako autonomia-erkidego guztietara hedatuko balira, erkidego hauetako pobrezia latzanaren aurkako borrokan dudarik gabeko eragin onuragarriak emango liriatekeela. Indize horiek jaitsiko liriateke, euskal indizietara adibidez, baina pobreziarekin amaitzeko lehen atalean aditzera eman ditugun muga berdina emango liriatekeela, ziur gaude. Lehen atalean ere adierazi dugun bezala, arazoa eredu bertan aurkitzen baita, eta ez kudeaketan: baldintzatutako gutxieneko errenten sistema batek muga gaindiezinak ditu pobreziarekin amaitzeko, nahiz eta hornidurak eta azken hamar urteotan EAEan eman den funtzionamenduaren narriadura hobetu.

Pentsa daiteke BGOE bat, nola edo hala, ezartzea nahi dugula, egun dugun bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errenten sistema hobetzeko aukerak aintzat ez hartuz. Hau ez da dioguna, ez gaude bide horretan. **gaiak** honetan planteatu dugun ideien eztabaidan, bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errenten inguruko eztabaian hain zuzen, enpleguarekin gertatzen den antzera suertatzen da, diferentziak alde batera utziz jakina. Gure alternatibaren nondik norakoak enpleguaren nondik norakoak dira: ESK-k, EAE eta Nafarroan ematen den gutxieneko errenten sistema defendatzen du, eta pobrezia aurkako borrokan eragingarriagoak egingo dituzten hobekuntza zehatzak aldarrikatzen ditu, eta ez daitezela hain kontrolatzaile eta estigmatzailea izan sistema horretara heldu behar duen jendearentzat baliabiderik ez izateagatik. Baina ESK-k ez du inor engainaitu nahi esanaz hori dela bidea BGOE batera heltzeko, nahiz eta gure ikuspuntutik, gaur-gaurkoz, pobreziarekin amaitzeko alternatiba bakarra den.

Pentsa dezagun egun EAE eta Nafarroan diren bermatutako eta baldintzatutako gutxieneko errentek azken hamarkadan, baldintza gehiago erantsiz, izan duten garapenaren kontrako bilakaera hartzen dutela, eta alde batetik, bermeen hedapen bat ematen dela, eta bestaldetik, prestazio hauek lortzeko behar diren baldintza gehienak kentzen direla, gutxieneko errenta hauek

ez lirateke inoiz BGOE bihurtuko, hauen muga iraganezina errenten betekizuna litzatekelako. Baldintza hau eror ez daiteken azken oztopoa da, eredia unibertsal (herritar guztiei zuzenduta) izan ez dadin pentsatuta baitago, pobreei zuzenduta dago eta.

BGOEtik ez litzateke posible izango bermatutako eta baldintzatutako errenta batekin bat egiteko urratsik ematerik, nahiz eta errenta hau oso aurrerakoi izan, BGOEri bere unibertsaltasuna murriztea exijituko liokelako.

Jakin badakigu batzuk, azken urteotan, pobrezia-aren aurkako estaldura unibertsal batetaz mintzo direla non baldintzatutako gutxieneko errenten prestazioak erabiltzeaz gain, langabezia-sorospena, erretiro eta ezgaitasun kotizazio gabeko pentsioak, haurrentzako laguntzen zabaltzea, eta abar erabiltzea planteatu dutela. Funtsean, arazoa berbera da, pobrezia-ari aurre egiteko hamaika bide desberdin erabiltzen badira ere, zentzu finalista batekin jardutea da, egoera horretan diren pertsonen baliabideak esleituz. BGOE beste paradigma batetik abiatzen da, unibertsaltasun eta baldintzarik gabetik hain zuzen, herritar bakoitzarengan fokalizatuz. Pobrezia-aren aurka jardutea da berau adierazi baino lehen, hau da, diru-sarrera unibertsalerako gutxieneko baldintzak sortuz, pertsona orok pobrezian eroriko ez direnaren bermea izan dezaten.

Oinarrizko errenta neoliberalen proposamenak

Tamalez, ezkerrekook BGOE baten ideia denon artean eta batera suspertzeko aukerak galtzen ditugun bitartean, korrante neoliberal batzuk alternatibak planteatzen ari dira Europar Batasuneko herrietan; Espainiako erresumaren kasuan, korrante neoliberal guztiak, oraingoz, BGOE defendatzen dugunok astintzea nahiago dute. Planteatzen dituzten alternatiba hauek ez dute zerikusirik zergapegarriak ez diren minimoekin edo Milton Friedman-ek bere garaian jendarteratu zuen zerga negatiboarekin, ezta honen kudeaketarekin, biak zerga-sisteman kointzidentzia bat zutela izan ezik; egun, BGOE ereduaren itxura handiago du, diru-sarrera unibertsal bat bezala agertzen baita.

Agertuko diren proposamenak kasuz kasu aztertu behar baditugu ere, pobrezia-ari aurre egiteko garaian posizio neoliberaletatik Ongizate Estatu mugak kontuan hartzen dituzten eredu hauek Ongizate Estatuarekin bukatu nahi dute, eta hemen datza desberdintasuna. Egundak desberdinetan Ongizate Estatuak ematen dituzten zerbitzuak (osasungitza, heziketa, zerbitzu sozialetan, eta abarretan) ordezkatzea da eredu hauen helburua, eta hauen ordez, egundak Ongizate Estatutik jasotzen dituzten prestazioak herritarrek ordaintzea errenta unibertsal batekin. Honela, usadio handiko eta garrantzi sozial biziko eskubideekin amaitu ez ezik, esku publikoetan diren arloak ere ekimen pribatuari irekiko lirateke.

Ideen eztabaidarako, kontuan hartu behar dugu orientabide neoliberal berri honek lehia ideologiko fronte berri bat sortzen duela. Lehen aditzera eman dugun bezala, honek, Europar Batasuneko herrietan ematen den proposamen berri bakoitza aztertu eta bere mamia argitzera behartzen gaitu, jakinda, aurrez, ez duela zerikusirik izango guk proposatzen dugun BGOErekin, baina iritzi publikoaren aurrean nahaste-borrastea emanda dago.



Azken hitza

ESK osatzen dugunok garbi eta argi dugu BGOE ideia on bat dela, honen ezartzeak zalantzarik gabeko onurak ekarriko lituzkeelako, segidan egiaztagarriak izango direnak, besteak beste pobrezia-
ren erroetik kentzea, neurri handi batean bada ere, eta aurrera egite bat errenten arteko desber-
dintasunaren aurkako borrokan. Eta beste batzuk denboraz emango direnak, hauen artean aipatu
kultura lanistaren hegemoniaren zartatzea, enpleguak egun duen zentralitatearen galtzea gure
jendarteko bizkarrezur bezala, aurrerapausoa gizon eta emakumeen arteko berdintasunean, xe-
nofonia eta arrazakeriaren atzera egitea, kapitalarekiko langileriaren indar-erlazioaren areagotzea.

Uste oso honek ez gaitu libratzen, inolaz ere, eta bi esparrutan zeregin garrantzitsuak ekitera
jartzen gaitu. Lehen esparrua **gaiak** honetan azaldu diren ideien arloan hausnartzen jarraitzea-
ri dagokio. BGOEri buruzko ideiak azken hiru hamarkadetan osatu direla pentsatu arren,
borrokatzen duzun helburuak lurra hartu ez duenean eta ideien esparruan jarraitzen duenean,
egoera honek umiltasun eta zintzotasun intelektualera behartzen zaitu. Ez daukagu modurik
ikusteko nola gauzatzen diren gure ustetan BGOEk hobetuko lituzkeen gauzak. Baina kontra
egiten digutenek ere ez dute modurik diotena baieztatzeko, eta egungo ordena defendatzen di-
tuztenen esparrukoak badira, okerrago dute, sistema kapitalistaren egungo dinamika kontrolarik
kanpo baitago, eta espezie bezala ankerkeriara edo desagertzera eraman gaitzake, edo bietara.

Gure hausnarketan bat egitera irekiak egon behar gara, egun BGOEn sinistu ez, baina ESK
kokatzen den koordinatu progresista berberetan kokatu eta proposamen sozialak egiten dituz-
tenekin. Hau dela-eta, aipatu BGOEren ideia ikusten ez duten sektore feministak, bai berdinta-
sunerantzako bidean nahikotzat ez dutelako edo kaltegarritzat dutelako eta BGOEren ezartzeak
kontrako ondorioak dituelakoan direlako.

Bigarren esparrua mobilizazio sozialarena da. ESK-k kultura oldarkor batean du hastapena; guk, hobekuntza sozialik duen edozein helburu lortzeko mobilizazioak eta borroka sozialak duten indarrean sinisten dugu edozeren ginetik. Helburua zenbat eta asmo handiagokoa izan, handiago izan behar zuen mobilizazioa helburua lortzeko. Uste dugu BGOErekin etorkizun bera izango dugula, orain arte borrokatu ditugun beste helburuekin izan dugun etorkizun bera. Batzuetan, badirudi ideia batzuk bapatean egiten dutela eztanda, dimentsio politiko, instituzional eta batez ere mediatikoa hartuz, eta gauetik goizera errealitate sozial bihurtuko direnaren irudikeria ematen dutela. Hau BGOErekin gertatuko balitz, guretzat aurreikus ez daitekeena, erne egon behar gara ziria sartuko baitigute edo horren arrisku bizia izango dugulako. Lehenago aipatu dugu Ongizate Estatuekin amaitzeko asmoekin oinarritzko errenta unibertsalen proiektuak saltzen arituko diren lehiakide neolibaralekin topo egingo dugula BGOEren esparruan.

Mundu sindikalak BGOE bere gain har dezan, eta ondoren langileriaren ohiko aldarrikapenekin batera mobilizazio-proposamen bihur dadin, egin behar ditugun ahaleginak, sindikatu bezala, handiak dira. Bizitzak iraupen-korrokalaria egin gaituenez, hor izango gara.



OHARRAK

A series of horizontal dotted lines for writing notes.

OHARRAK

A series of horizontal dotted lines for writing, spanning the width of the page.

